



Arartekoaren Ebazpena, 2010eko otsailaren 23koa. Horren bidez, EuskoTreni iradokitzen zaio garraio zerbitzuan etxeko animaliak eramateko baimena ematea, betiere, horrek beste erabiltzaile guztiei eragozpenik ez eragiteko baldintzak betez.

Aurrekariak

- Arartekoak EuskoTreneko erabiltzaile baten erreklamazioa jaso zuen. Erreklamatzailak bertan adierazi zuen ez zitzaiola ondo iruditzen trenetara etxeko animaliarekin ezin sartu izatea.

Erreklamazioan, funtsean, adierazi zuen etxeko animalia batzuk modu egokian garraiatu daitezkeela zerbitzua aztoratu gabe, eramateko kutxatxoan barruan. Kutxatxo horiek itxita daude eta bereziki etxeko animaliak garraiatzeko diseinatuta daude.

Erreklamatzailak horri buruzko iradokizun bat egin zuen EuskoTrenen bezeroentzako arreta bulegoan. Bulego horrek adierazi zion etxeko animaliekin bidaiatzea ezinezkoa zela EuskoTrenen 7/89 zirkularrean jasotako irizpide baten ondorioz. Horrek, berariaz, honakoa adierazten du: *“Galarazita dago trenetan mota guztietako animaliak bidaiarien atalean eramatea, itsuekin doazen itsu-txakurrak soilik bidaia dezakete doan”.*

- Erreklamazio hau behar bezala izapidetze aldera, EuskoTrenera jo genuen eta gogoeta batzuk helarazi genizkion. Gainera, iritzia emateko eskatu genion garraio zerbitzu horretan etxeko animaliak eramateko aukera zabaltzeko aukera zela eta.

2009ko abenduan EuskoTrenek gure idazkiari txosten baten bidez erantzun zion. Txosten horretan etxeko animaliekin bidaiatzea galarazten duen zirkularrean berri eman zigun eta, horrez gain, erabaki hori hartzeko 1989. urtean egon ziren arrazoiak adierazi zizkigun. Funtsean adierazi zuen, horretarako arrazoi nagusia bidaiariaren erosotasunari lehentasuna ematea zela, zenbait etxeko animaliak eragin ditzaketan segurtasun eta higie arazoak direla eta. Edonola ere, adierazi zigun joan den udan Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren jakinarazpen bat jaso zuela. Horren bidez, irizpide hori berriro hausnartzea eskatu zioten, alderdi guztien interesak eta eskubideak errespetatzen dituzten jarrera





permisiboagoetara joz. Jakinarazpen hori oinarri hartuta, enpresa jarraibide berriak lantzen ari da etxeko animaliei dagokienez.

Aurrekari horiek ikusirik, egokia iruditu zaigu EuskoTreni eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari aztertu dugun gaiari buruzko gogoeta batzuk helaraztea:

Gogoetak

- Arartekoak gai honi buruzko hainbat balorazio egin ditu eta horiek helaraztea egokia iruditu zaigu. Izan ere, une honetan garraibide publikoan etxeko animaliak eramateari buruzko jarraibide berriak egiten ari dira.

Hasteko, aintzat hartu behar dugu, gero eta gehiago, gizarte honetan etxeko animaliak dauzkagula eta eurekin bizi garela. Animalia horiek gaur egun ez dute soilik gizakiarentzat zerbitzu bat ematen. Izan ere, gure eguneroko bizitzan integratu dira, gure bizitzan parte hartzeraino eta baldintzatzeraino, etxe barruan zein kanpoan: aisia, garraioa...

Animaliak babesteari buruzko legeriak, kasu honetan urriaren 29ko 6/1993 Legeak, horrelako animaliak edukitzeari eta zaintzeari buruzko araudia ezartzen du; besteak beste, etxeko animalien higiene eta osasun egoera. Lege horrek, animaliak garraibide publikoetan eramateari buruzko arauak osasunari buruzko behin-behineko araudira bidaltzen ditu. Araudi hori, gaur arte, ez da garatu.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak izateari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak, txakurrak identifikatzeko betebeharra eta osasun kartila eramatekoa ezartzen ditu eta, gainera, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrei buruzko arau espezifikoak ezartzen ditu.

Eremu publikoetan animaliak egoteari buruzko beste erreferentzia bat urriaren 21eko laguntza-txakurrei buruzko 17/1997 Legean aurki dezakegu. Lege horrek berariaz baimentzen du horrelako animaliak garraibideetan sartzea. Legegileak berak itsuei laguntzeko itsu-txakur kontzeptua, laguntza-txakur kontzeptura zabaldu du, adibidez, ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntzeko laguntza-txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legea.





- Aipatu behar dugu bidaiarientzako garraio publikoaren lehentasuna, bidaiatzen duten pertsonak euren helmugara ahalik eta egoera onenenean eramatea dela.

Baina horrek ez du oztopatzen, bidaiatzen ari dena animalia baten jabea denean, bere burua benetako arazo baten aurrean aurkitzeko aukera izatea. Zailtasun hori konpontzeko irtenbide bat aurkitu beharko litzateke, eragindako alderdi guztien interesak neurtzen eta aintzat hartzen dituen irtenbidea.

Testuinguru horretan, erabiltzaile honek egindako erreklamazioa arrazoizkoa iruditzen zaigu. Zerbitzua bere etxeko animaliarekin erabili nahi du, betiere, –beste erabiltzaile guztiei eragozpen eta arriskurik sortu gabe– bere animalia kutxatxo txiki batean eramateko baldintzarekin. Kutxatxo horiek animaliak bertan itxita eta eroso bidaiatzeko eginak daude, hirugarrenei inolako eragozpenik eragin gabe.

Gai honen aurrean, trenen garraio zerbitzuen joera, estatu mailan zein gure inguruko herrialdeetan, argi eta garbi garraio publikoetan etxeko animaliak sartzeko aukera ematekoa da. Horri dagokionez, adibide gisa honakoak aipa ditzakegu: Donostiako Tranbia Konpainia, Madrilgo metroa, Bartzelonakoa, RENFE –ibilbide luzeko trenak zein aldiriko trenak–, Londoneko metroa eta Pariseko garraio zerbitzua.

Garraio zerbitzu horietan etxeko animaliekin sartzea, azter daitekeen moduan, ez da osotasunean egiten, orokorrean baldintzatuta baitago, bidaiatzen duten animaliak beste erabiltzaile guztiei eragozpenik ez sortzeko baldintza dago. Hortaz, ez da eragozpenik sortzen, horrelako animalia txikiak kutxatxo egokien barruan eramaten badira, kutxatxo formak edo tamainak inor eragozten ez badu... edo uhalekin lotuta badaude eta, txakurren kasuan, muturrekoa badaramate. Bestalde, etxeko animaliak garraibidean eramateak, batzuetan, tarifa gehigarri bat eskatuko du, eta besteetan ez.

Kexako datuak ikusirik eta sozietate publiko horrek bidalitako informazioarekin eta egindako gogoetekin bat, gomendio hau egiten dugu:





2/2010 IRADOKIZUNA, otsailaren 23koa, EuskoTreni egina.

Jarraibide berriak garatzeko irekita dagoen prozesuan, EuskoTrenek garraio publiko horretan etxeko animaliak eramateko aukera onartzea aintzakotzat hartu beharko luke, betiere, horrek erabiltzaileei eragozpenik sortzen ez dien baldintzetan eramaten badira.

